




BOKTESI

E
i
k
a
r
r
i
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ANE LABAKA

erreskatea

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Zer dela eta irten nintzen uretatik? Akats bat izan zen.

Begiak ixten ditut, uraren poza gogoratzen dut, pentsatzen dut ez nuela sekula irten behar.

Marina Yuszczuk

Umedun dagoela kontatu berri du Inesek hondartza gaineko parkean. Ezker bularra kanpoan dauka, ahabi zanpatuz betetako tuper txikia eskuin eskuan, poltsikoetan hosto ihartu okre bat, makil luzexka bat eta bi harri-koskor. Mutil-lagun triatleta bat ere badauka; eta haurdun dago, hirugarrenez. “Urri erdialdean jaioko da, ondo bidean”, zehaztu die parkekideei, “hamabia ezarri digute data probabletzat”. Hispanitatea ekarri du hizpidera jirako gizon bakarrak; legioaren desfilea eta ahuntz perilladuna. Bere barreak parkea okupatzen du, osorik, alderik alde. “Zorionak”, ahoskatu du Lidek, ia ahapeka, entusiasmo tantarik gabe. Eta kirrinka ari diren zabuei zeruraino bultzaka jarraitu dute. Aski du nork berearekin. Aski eta sobera, jaiotza-tasa luizia lez behera eta behera ari dela sinestea gaitza den mundu-zati honetan.

Oraintsu hasi zaio Lideri arnasa biriketara iristen. Argi-izpi indarge batzuk suma ditzake hor nonbait, nahi baino urrunxeago baina dizdizka. Denbora urteka kontatzera itzultzear da, azkenik. Haurdunaldietan asteak zenbakitzen direlako eta umea jaio berri-berritan, aldiz, egunak bihurtu ohi direlako denbora-unitate behinen. Hori, teorian, ilunantza sosegu bada eta goiza zabaltzean gau osoan zehar zenbat alditan jaiki ote zaren gogoratzeko gai, zu. Kontrara, ia ezinezkoa izan ohi da gaukakotik hilabetekakorako igarobidea. Maiatzean beteko ditu bi, ordea. Bi urtetxo. Azkar esaten da. Andrezaharrek diote auzoaren etxeko haurrak abiadan hazten direla beti. Asko dakite andrezaharrek.

Apirila udaberriago heldu zaio aurten. Ez da astebete herriko zineman izan zela, erdi bi egin zenetik estreinakoz. Filma askorik gustatu ez zitzaion arren, hori zen gutxienekoa. Gominola poltsakada bat erosi, hegaldi-modua aktibatu, eta ez zuen aretoko ilunpean mugikorrari begiratzeko tentaziorik izan.

Orain artean ez zaizkie behin ere izarrak lerrokatu elkarrekin afaltzera irteteko beste. Gosaltzera joan izan dira noizbehinka, edo bazkaltzera, gehienara, txikia tarte baterako Oierren arrebarekin utzita. Mendialdera ere egin dute ihes tartean-tartean. Erronkatzat bizi dituzte lehenago aurretiaz zehatz-mehatz programatu beharrik gabe egiten zituztenak, lorpentzat; erritu inizatikoaren aura dute, kasik. Oraindik ere gehientsuenak du excel taula baten traza –

“edo zu edo ni”, “edo nik edo zuk”—, baina hasi dira pixkana-pixkana biak kabitzeko besteko parentesiak ere zabalagotzen. Beti daude atezuan, halere, beti erdi-presaka. Behin tentsio zoli bat soineratu eta sekula gehiago erantzi ezin izango balute bezala da. Lidek ez du akorduan nori entzun ote zion haur txiki bat izatea sukaldean etengabe zerbait sutan izatearen parekoa dela. Nekez oroitzen du lehenago zeri buruz hitz egiten zuten biak bakarrik zeudenetan. Lehenago, Lur munduratu aurreko bizitzan.

Oraintsu utzi dio adatseko ile urdin bakanak erauzteari ere. Onartu ditu, behingoan. Ez diote aurpegira horren itsusi ere ematen. Erdiondoa bataila konstante bat da komuneko ispiluaren aurka. Bi zimur gehiago bekainen gainean, lehenago existitu ere egiten ez zirenak. Erdiondoa azalberritze bat da, zentzu literalean. Ile-mataza bat duxako hustubidea buxatzen, eta aurki erabat soilduko zarela uste duzun unean deskubritzea ile solte labur-laburrak ari zaizkizula jaiotzen garondotik eta lokietatik behera. Ile bihurri menderakaitzak, errime egiten dietenak itzuri hala mototsari nola urkilei. Atzamarrekin orrazten tematu arren, belarri-atzeetaraino heltzen ez direnak. Eskerrak denborarekin luzatzen joan zaizkiola eta kizkur harroen artean erdi-gordean daramatzala orain. Nahita ere ezkutatu ezin dituenak kiloak dira, baina. Aspaldi ez bezala, bere burua harrapatu du berriki igerilekuan tripa barrurantz sartu nahian. Arnasa eteten eta sabelaldea hipopresibotzen. Nerabezaro urrunean gorputzak beretutako keinua erreproduzitzen. Lehengo pisura itzuli nahi luke kosta ahala kosta, Lurrek titia utzi aurrekora. Haurdundu baino lehenagoko sasoi betea gero eta urrutirago doakiola sentitzen du zintaren gainean aurrera eta aurrera ari dela, izerdi-flotan.

Apenas dagoen amarik gimnasioetan.

Duela gutxira arte, Lurrek beretzat hartzen zuen Lidek antsietatez irentsitako oro. Amak hasiera-hasieratik antzeman zion bi bularretako bat kuttunagoa zuena. Urtebeteren ostean, gero eta argiago adierazten zion ezetz, berak ez zuela ezkerrekoa ikusi ere egin nahi. Eskuinekoa lotzen zitzaion bere kasa. Eta hala utzi zion besteak, apurka, esnea ekoizteari. Hala joan zen sikatuz-sikatuz. Hala sortu zitzaion asimetria arraro hura bularraldean. Parkeko elkarriketa betiberdinen batean bere kasua kontatzera ausartu zenean ohartu zen ez zela bera munduan horrelako zerbait gertatu zitzaion ama bakarra. Ez omen zen hain ezohikoa ere. Lasaitu egin zen une batez, eta haserretu. Seigarren mailan lagun-taldeko neskei ahots hautsiz

hilekoa jaitsi zitzaiola aitortu eta “niri ere bai”-ka erantzun ziotenean sentitua berritu zitzaion barnean. Norbaiti hilabete luzez haurdun gelditu ezinik zebilela azaldu eta “niri ere berdin gertatu zitzaidan” ihardesten zionekoa. Zergatik egiten ote zuten beste guztiek isiltzera?

Haserre hartatik bost hilabete eskasera esan zion Lurrek titiari agur betirako. *Bocamanospies*. Orduantxe izan zuten lehen aldiz gaitzaren aditzea. Herriko beste ume guztiekin batera, zauri txikiz bete zitzaizkion Lurri eskuak, oinak eta ahoa. Batez ere, ahoa. Mihiak ilargi azalezkoa zirudien. Goseak amorratzen zegoen, eta negarrez lehertzen zen titiburura lotzen saiatzen zen aldiro. Negarrez lehertzen ziren. Lidek egun batzuk igaro zituen bularrak kanpoan; eskaini, eskaini eta eskaini. Haurrak, nolanahi ere, ezetz-ezetz egiten zion buruaz. Harik eta azkenerako amore eman eta eskaintzeari utzi zion arte. “Bukatu da”. Akaso ez zen beste ama batzuk bezainbeste ahalegindu.

Ondoko gelan egiten du lo ordutik. Lehen noizean behin, batik bat egun garrantzitsuen bezperetan, eta azkenaldian ia beti, Oierrek ospitaleko guardia daukanean izan ezik. Oier gai da zarataka eta ostikoka dabilen piztia gautar baten ondoan atsedean hartzeko. Ikasi du; egokitu da ohekide berriaren formetara.

Beste haurrek ez dute aitarekin lo egin nahi. Beste haurrek ez dute ezertxo ere nahi aitarekin. Beste aitak ez dira haurrak lokarrarazteko gai. Oier bai, hasieratik. Diskurtsiboki poza ematen dio, auzitan jar dezaketelako balizko senaren karga; dena izan dezaketelako erdibanatuxeago. Erraiak atximur daramatza Lidek, ordea. Lur ez da beste haurrak bezain amazuloa. Besteen haurrek gau osoa egiten dute lo, jarraian. Parkeko beste ume guztiek, aspaldidanik. Lide betitik izan da lo txarrekoa. Betitik bizi izan baita alerta, bere kumeak zaindu behar dituen animalia zauritua nola. Areago orain, ezen egiaz baitauka bere zaintzapean edozein unetan ohe izkinatik behera eror daitekeen kumetxo bat. Amarekin gogoratzen da, ezinbestean, nola topatzen zuen itzarrik bera parrandatik itzultzen zenero.

Psikologoak bekainak goratzen ditu haurrarekin lo ez egiteagatik errudun sentitzen dela kontatzen dion bakoitzean. Duela urte eta erdi eman zuten terapia amaitutzat. Aurretik, bi urte oso kulpaz bezatu ezinik. Bi astean behin ordubeteko saio bat. Online hasi dira atzera. “SOS”

idatzi zion erditzeostean; “lagundu iezadazu, mesedez”. Psikologoak berak gomendatu zion etxerako garbitzaile bat hartzea. Zikin ikusten zuelako dena, ordena bihurtu zitzaiolako obsesio. “Kontratatzeara”, esan izango zion ziurrenik; Paolak ez zeukan inolako kontraturik, baina. Oierrek hitz egin zuen neskarekin. Berak ez daki nor den ere. Nahiago du horrela; ez da hain-hain errudun sentitzen. Ez dio inori kontatu garbitzailearena. Are, mutu geratzen da noizbait lagunartean gaia ateratzen bada. Lotsa ematen dio. Paola iritsi aurretik dutxako zoruan pilatutako ileak erretiratzen aritzen da propio. Maite du Paolaren arropa zabaltzeko era; kanpotik barrura eta handienetik txikienera –maindireak, eskuoihalak, muselinak, galtzak, kamisetak, body-ak, galtzontzilloak, kuleroak...–. Puskaz txukunagoa da berearen aldean. Hortzetako eskuilen ontzia konketaren ezkerraldetik eskuinaldera mugitzen du Paolak aldiro, eskuko xaboiarekin trukatzuz. Bertatik pasatu izanaren arrastoa utzi nahiko balu lez jokatzeko du, lixiba usaina nahikoa pista ez balitz bezala. Plazer hartzen du Lidek harlauza hotzen gainean oinutsik. Astearteetan soilik erantzten ditu galtzerdiak. Paola etxetik joan berritan ez zaio harea alerik itsasten oinazpietan.

Lur jada ez da gaixotzen amak bolo bat daukanero. Ez du intzirika entzuten etxeko atea ixten duenetan. Lortu du oholtzara bestela igotzea; beste gorputzaldi batekin. Dagoeneko ez ditu Aitziren begiak desesperatuki bilatzen gidoi zatiren bat ahazten zaionero. “Lasai, segiko dut nik”.

Irakurtzeko denbora berreskuratzen hasixe da. Pentsa, batzuetan astia hartzen du bere garaian luzeegiak zirelako apartatu zituen liburuentzat ere. Hasi da, pixkanaka, noizbait zehaztugabe hartarako –honetxetarako– gordetako pila arintzen. Irakurtzeak irudimena pizten dio. Sortzeko irrika, aspaldi ez bezala.

Jada ez zaizkio titimuturrak minberatzen ur hotzetan barneratzean.

Oraintsu hasi da kalean zehar bakar-bakarrik doan emakumearen ibilera berrikasten.

Titiburuak puztu-puztu eginda zituela jaio zen Lur. Sorginen esnea zela esan ziguten. Nire estrogeno-eztandaren ondorioa, pediatrik azaldu zigunez. Ez zitzaion lilura begietan kabitzen. “Zer den gorputza”, pentsatu nuen neurekiko. Ahituta nengoen. Guztia amaitu zela zirudienean, barea arnasten hasi ginelarik ia, atzera gaiztotu baitzen giroa erditze-gelan. Plazentak ez zuen berez atera nahi izan, eta gutxi falta izan zitzaidan ohatilan bertan odolusteko. Niri ez zidaten galdetu ere egin zuhaitz itxurako inpresio koloretsurik nahi ote nuen etxera eramateko.

Hilabeteak daramatzat lanera itzultzen saiatzen. Behin, izugarri miresten dudan artista batek irria ezpainetan aholkatu zidan bizitza interesgarria nuen artean umerik ez izateko. Askotan gogoratzen naiz berarekin. Bikiak dauzka berak. Bi mutil nerabe, testosteronaz lepo. Orain hurrena, azken Urtezaharrean bietako bat lagunek etxera mozkor arrail eraman zutela kontatu zidan.

Hilabeteak daramatzat nire espazioari eutsi nahian. Izua diot desagertzeari, panikoa. Ikus nazaten behar dut, sekula baino gehiago. Maiatzeko emanaldien kartela, WhatsAppeko *status*-ean. Azkena diseinatu dudan liburu-azala. Garrasi ito bat.

“Hemen nago”. “Hemen jarraitzen dut”.

“Zer kutrea, *tia*”.

Marraztea dut ihesbide, etxetik atera gabe egin dezakedalako, pijama hutsean eta bakarka. Pisuagoa zait jendaurrekoa, askoz. Taldekideekiko igurtzia, fokuak, oholtza gaineko presentzia. Zer den gorputza. Oraindik ez diot inori boz gora aitortu behartuta itzuli naizela. Barru-barruan, ezkutatu egin nahiko nukeela oihal gorriaren atzean.

Sarri aritzen naiz margoz ziprztindutako nire eskuei beha. Mina ikusten dut, oinazea. Ikusten dut indarra, ikusten gogoa. Kolpean utzi dio azalak umetan bezain leuna izateari, hatz-koskorren bueltakoak, batez ere. Honezkero hasiak zaizkit ama baten eskuen antza hartzen.

Goizago esnatzearekin egiten dut amets, goizago aldiko. Egunari aurre hartu ahal izatearekin. Existitu existitzen omen dira idazle onak, nobela bikainak idatzi izan dituztenak goizaldeko bostetatik zortzietara bitarte, etxeko gainerakoak ohean zeudelarik. Ni nazkatu naiz haurren loa *maduratiboa* dela entzuteaz. Ez dut ispilu-hormonei buruzko azalpen gehiagorik nahi. Haginka erantzungo diot *kortisola* aipatzen didan hurrengoari. Bainatu naiz olio esentzialetan, probatu dut terapia kraneosakrala. Hitz egin didate sistema parasinpatikoaz, diafragmaren hersturaz. Ni ere atera naiz kontsultetatik autoinkulpazioz gainez. Ama txarrak beren seme-alaben bitartez identifika omen daitezke.

Distantziaren arabera mugitzen da Lur, gehienetan katuka eta noizean behin oinez. Baldin eta iristeko presa badu, segituan jarriko da lau hankan. Azkenaldian, dena zaio presazko. Orain gutxi dantzatu ditu lehen urratsak haurlauza hotzen gainean. Ezin nuen imajinatu ere egin horrenbestearino hunkituko nindutenik. Zer den bizitza. Sukaldeko tiraderak parez-pare zabalik, arroz alezko itsaso bat zoruan barreiatuta. Lasaitasuna galtzen joatea gu –dena zaigu arrisku–, berak autonomia irabazi ahala. Azken hiru goizaldeetan ohean tente jarri nahian harrapatu dut, artean lo-suma zebilela. Berdin egiten zuen esertzen ikasi zuen garaian. Behinola irakurri nuen egunean zehar ikasitakoa barneratzen dutela haurrek gauetz. Hizketan hasten denean, gauak hiztegi bihurtuko dira akaso.

Urtebete pasatxo joana zait geroko gerotan. Ez naiz espektatiben segida bat baino.

Eta gaur, amorrak hartu nau.

Lur haurreskolan utzi eta ordu-erdira deitu didate sukar pixka bat zuela eta bere bila joan beharko nuela esanez. Bero sumatu dutelako besaperatu omen diote termometroa. 37,5.

Mundua jausi zait gainera. Ez dit astirik eman margoak paletara ateratzeko ere. Entrega data gaineen daukat, eta goizeko bi orduak galduz gero ezinezkoa izango zait garaiz heltzea. Bart gau on samarra pasatu du, gainera, bare esnatu da goizean, eta ezustean harrapatu nau Soniaren deiak. Ahotsean epai moduko bat igartzen diot beti. Egiari zor, igaro izan dut inoizka goizeko ordu pareta mugikorrari begira, hatzak gurutze, nik ere eraman izan dudalako Lur haurreskolara kili-kolo zegoela jakinik. Aitor dut. Zer dira, bada, bizpahiru dezimatxo? Parazetamol txute bat, eta aurrera.

Hasieran ez nuen hala egiten, inondik inora, hasieran ez nintzen hain ama txarra, baina haurreskolan hasi zenetik ez ditu bi aste oso igaro birusen batek erasan gabe. Bitarte labur-labur horietan soilik eutsi ahal izan diot niretzako denbora errekuaratzeko esperantzari.

Zortzi hilabeterekin hasi ginen. Goiz, jendearen begietara oso. Bera zen arrastaka zebilen bakarrenetarikoa. Parkeko beste ama guztiek hartu dituzte eszedentzia amaigabeak. “Bi ordutxo baino ez da geratzen”, presatzen nintzen ni, barka-eskean bezala. Uste baino errazago joan zen egokitzen aldia. Zoratzen zegoen Lur. Jolas, kolore eta soinu, mundu berri bat zabaltzen zitzaien aurrean. “Bera bai, eta zu?”, galdetzen zidaten. Ez nuen jakiten zer aurpegi jarri. Ez nekien nola zilegitu nire irrika. Haurren siestetatik harago bizitzen hastekoa, behingoz.

“Berak lo egiten duenean egin lo zuk ere”, esana zidaten. Galopan nenbilen ni, aldiz, egunean zeharreko ordubetxeko horiek libratzeko antsiaz. *Antolatuta* aditza azazkaletan inskribatuta daramat, ume-umetatik, eta aspaldian ez daukat konpromiso sozialetarako unerik, aisialdirakorik. Daukadan denbora apurra lanerako da. Lanerako bakarrik. Eta beti dago mehatxupean. Beti esnatze goiztiarren baten ikaraz. Klaxona, txirrin-hotsa, behar baino ozenago entzuten den eskailburuko elkarriketa.

Izatez, ederra da haur baten esnaera –bizi-bizi, existitzeagatik pozik–; badakit. Ederra izan daitekeen modura haur bat ipurdi eta belaun margo ziprztinduta, pasilloan zehar ildaska hori-magenta-marroixkak inprimatzen. Zer eta bere amaren paletaren gainean eseri delako.

Barre eta negar egin nahi ditut, bi-biak aldi berean. Zoriontsua dirudi pintura potoei hozkaka. Sutu egiten nau, behar lukeena baino gehiagotan, eta batzuetan pentsatzen dut ez ote duen nigandik traumaren bat oinordetuko. Ez ote duen berak ere helduagotan dirutza gastatu beharko psikologoetan. Jaiotzerako ere traban izan nuelako jada. Sekula ez dut haurdunaldiko lehen hiru hilabeteetan bezainbesteko begitarte zurbilik eta gorputz txarrik izan. Oierrek kontatzen du negar batean topatu ninduela behin lanetik bueltan, sofan kukuturik, aldameneko etxean obretan ari zirelako eta ezin nuelako gehiago. Ordura arte usainik batere ez zuten gauzei ere izugarrizko hatsa zerien garai hartan. Jasanezina zitzaidan akrilikoena. Hozkailua ireki eta komunera egin behar izaten nuen zuzenean. Garai hartatik ez naiz izokina jateko gai.

Gutxi barru asteburu oso bat pasatuko dut etxetik kanpo, lehenengoz. Sormen prozesu berri bati ekiteko elkartuko gara. Aitzik sumatu du jada nire kabitua ezina. Zenbat mundualdi igaro ote dira azkena inprobisatu nuenetik? Esne-fabrika bat naiz azken asteotan, izozkailua poltsa zuri txikiz bete-bete. Solidoekin ere gero eta trebeago moldatzen da Lur. Arindu handia hartu nuen bera jaten ikusi ahala. Oraindik ez dut ama bakar bat ere entzun beste norbaiten biziraupena zure mende egoteak dakarren zamaz mintzo. Egunak –gauak– zenbatzen ari naiz, atzerantz. Badakit etxeko biak ondo moldatuko direna. Deseatzen nago, baina beldurra ematen dit. Beldurra ematen dit, baina deseatzen nago. Nekeza zait onartzea esaldiek bi zati dituztela orain eta bigarrenak lehenari aurka egiten diola nahitaez.

Lur mainaka hasi da. Logurak erreta dago gaixoa, baina ez zait askorik falta gaur amaitu nahi nuen hori amaitutzat emateko. Mugikorrean marrazki bizidunak jartzeko bulkada ito behar izan dut barnean, entzungailuetan musika jarri eta lanean jarraitzekoa. Negarrez hastear den umea lasaitzeko beste modu bat marrazteari uztea litzateke, edo behintzat ez marraztea marraztu ahalko nukeena bezain ondo. Perfekzionismoari iskin egitea, bizitzan estreinakoz.

“Itxaron pixka bat”, erregutu diot begiekin. “Horiarekin bukatu behar dut gaur, bai ala bai”.

Negarrez lehertu da, bat-batean, nire hitzetatik ulertu izan balu bezala “azken trazuak bukatzean baino ez naiz zu maitatzera itzuliko”.

Samurtasuna naiz partez, partez furia. Xuxurla eta oihu egiteko gogo, gorputz berean. Batzuetan, bi bizitza bizi ditudala iruditzen zait. Nirea eta Lurrena, egunero.

Denbora ziztuan igarotzea nahi nuke, askatzeko adina hazi dadin. Joaten uzteko beste. Eta, aldi berean, ezin dut ekidin azkarregi hazten ari delako tristatzea. Bere baitan bi zati dauzkan esaldi bat naiz; bigarrenak lehenengoari aurka egiten dio nahitaez.

3

Goizean irakurri duzu albistea mugikorrean. “Bi urteko haur bat topatu dute kalean, bakar-bakarrik, gurasoak tabernaz taberna zebiltzan bitartean”.

Algoritmoak igarri du nekatuta zaudena. Aspertuta, egunero koreografia berbera errepikatzearen errepikatzeaz. Eta, halere, atzo ia automatikoki eskatu zenion Inesi Ani txikia altzoratzeko baimena. Ezin izan zenion gogoari eutsi. Bil-bil egin zenuen besoen artean, albo batera eta bestera kulunkatu, eta kantatu egin zenion ahalik eta gozoen. Mihia atera, eta soinutxoak egin zenizkion ezpaineekin. Inpresioa egin zizun bere hauskortasunak. Nabari zitzaion zegokiona baino hilabete- erdi lehenago munduratu zena.

Begira-begira gelditu zitzaizun Lur.

Urertzean ari zarete orain, kubo, pala eta arrastelu, bere aginduetara. Zulo handi-handi-handi bat egin nahi du, marea gora datorrenean igerileku bihurtuko dena. Ikuskizun hutsa da Lur. Olatu artean aurrera-atzera; orain korrika, orain saltoka, orain dantzan. Oinez dabiltzanek irribarre egiten dute pasaeran.

Kanpotik begiratuta, ez zarete zuengandik espero zena baino. Lurri orin bat sortu berri zaio eskuineko bekainari lotuta, zuk ere orin bat daukazun gune berean.

Oierren amaren lagun bat hurreratu da eta, ez bat eta ez bi, hala sententziatu du umeari beha:

—Hau hazi duzue ja! Prest zaudete bigarrenerako!

Ez zara ezpainak irribarretzen saiatu ere egin.

Oierrekin utzi duzu Lur urez betetzen hasia den putzuan. Ederragoa da hondartza irailaren azkenetan. Betaurrekoak jantzi, neoprenoaren kremailera bizkarrezurrean gora itxi, eta uretan murgildu zara.